

## **«Arreta gure kosmobisioan jartzen badugu, ez dago geldituko gaituen munstrorik»**

Naturaren eta giza eskubideen defendatzaileok, estatuen, krimen antolatuaren eta enpresen indarkeriaren biktimok, Guatemalako, Euskal Herriko, espainiar estatuko, Kolonbiako eta Mexikoko kazetari eta komunikatzaileok adierazten dugu:

Azken egunotan bertatik bertara egiaztatu ahal izan dugu meatzaritza-, energia- eta eraikuntza-enpresen interesak eta krimen antolatuarekin lotutako taldeek herrien, komunitateen eta pertsonen behar eta eskubideen gainetik daudela oraindik.

Enpresa horiek, kasu askotan, ingurumenaren aldeko ez mozorrotzen dira orain, «ingurumen-jasangarritasunaren» eta «tokiko garapenaren» bermatzaile gisa izendatzen dituzte euren buruak, baina, egiatan, klimaren eta eskubideen krisi honetara ekarri gaituzten bipiltze-, metatze- eta ustiapen-logika berberak errepikatzen dituzte.

Ondo dakite hori Alta Verapaz-en, non orain palma afrikarraren monolaborea eta meatzaritza elkartzen diren proiektu hidroelektriko handi eta zentraletan, hala nola RENACEn eta OXCEn. Horiek Cahabón ibaia desbideratu eta lehortzen dute, eta ur horien menpe daude bertako komunitateak. Hori kontatu zigun Bernardo Caal Xol-ek. Bera izan zen proiektu horien oposizioaren burua, eta 4 urtez espetxeratu zuten horregatik beragatik. «Gainera, inork epaituko ez duen ekozidioda dela» helarazi zigun Bernardok, eta «hidroelektrikoek ibaia torturatu, sarraskitu eta erailtzen dutela». Halaber, zentral hidroelektriko horietan sortutako energia ez da bertako komunitateen beharrak asetzera bideratzen, baizik eta meatzaritzako eta agroindustriako instalazioen eskari energetiko geroz eta handiagoa asetzera. Instalazio horiek dira ibaiaren goialdean haienak ez diren lurra beren gain hartu eta komunitateak lekualdarazten dituztenak. Hori guztia estatuko Gobernuaren eta tokiko instituzioen oniritzi eta babesarekin, eta indar polizial eta militarren presentziarekin.

Kontsulta libre eta informaturako eskubidearen urraketa bereziki larria izan da El Estor-en, Izabal aintziraren ertzetan. Komunitate-liderrekin, tokiko agintariekin eta arrantzaleen gremioko ordezkariekin egon ginen, eta, batez ere, haien haserrea adierazi ziguten gobernuaren, erakundeen eta komunikabideen aldetik jasaten ari diren erabateko utzikeriagatik, nahiz eta hainbat pertsona kriminalizatu, espetxeratu, haien lurra bortxatu, jazarri eta erail dituzten.

Gainera, populazioa zatikatzeko saiakerak etengabeak dira, komunitate-liderrak erosten dituzten bitartean. «Gure pobrezia saltzen da, enpresak gure pobreziaz aprobetxatzen dira eta populazioa erosten dute» baieztatzen du Pedro Xolek. El Estorreko Bake Epaitegian 20 urtez lan egin zuen Xolek, eta meatze-enpresa bere postutik kanporatzen saiatu zen.

Fénix meatze-gunea, zeinaren atzean Solway Investment enpresa-talde errusiar-suitzarra dagoen, ez dago martxan gaur egun, borrokaren ondorioz. Dena den, laster bere jarduerari berriz ekiteko, aintzira kutsatzen jarraitzeko eta nikelaz eta beste mineral batzuek betetako ehunka kamioik lurraldea etengabe zeharkatzeko beldurra nabari da. Inork ez zien galdetu Erdialdeko Amerikako aire zabaleko meategirik handiena lur hauetan kokatzerik nahi zuten. Eta urteetako borrokaren ondoren, estatuak eta enpresak 2021ean kontsulta bat egitea adostu zutenean, kontsulta setio-egoera bete-betean egin zen, pandemiak eragindako osasun-alertan, eta antzinako agintari gehienak, eta beraz, kaltetutako biztanle gehienak, kontsultatik kanpo utzi ziren. «Emakume borrokalaria naiz, eta ez dut inoiz aurpegia ezkutatu», ohartarazi zigun Angélica Choc-ek, grabatzeko baimena eskatu eta berehala. Amaitzeko, Tomas Chiculcul-ek horrela zioen: «Konpainia horrek gure eskubideak urratzen dizkigu, hain zuzen, gure eskubideak defendatzeagatik. OITren 169. hitzarmena ez da betetzen gure lurraldean, nahiz eta estatuak idatzita izan. Gobernuak ez gaitu kontuan hartzen. (...) Krimen guztiak iker daitezela eta kontsulta egin dadila, herriak erabaki dezala, eta meategiaren aldeko emaitza ateratzen bada, horrela izango da».

Izabal aintziraren bestaldean, palma afrikarrak bertako biztanleak estutu eta itotzen ditu. Landare horren olioaren zati handi bat Alemaniara esportatzen da. Chapin Abajo-ko komunitateak bere antzinako lurraldearen zati bat berreskuratzea lortu du, palmari lekua irabazteari esker. «Arreta gure kosmobisioan jartzen badugu, ez dago geldituko gaituen munstrorik» helarazi zigun komunitateko liderretako batek.

Bidaia honetan, gainera, Isela González eta Amada Chávez kideekin egon ahal izan gara, eta haiek ordezkatu dituzte Mexikoko Chihuahua estatuan kokatuta dagoen Sierra Tarahumarako komunitateak. Kasu horretan, kazikeek eta tokiko politikoek, krimen antolatuek eta legez kanpoko mozketek Guatemalan meatzaritza-enpresek jarduten duten bezala jarduten dute bertan. Hainbat dira indarkeriaz aritzen diren eragileak, baina ondorioak eta kaltetutako pertsonak berdinak dira: komunitate indigenak, botere ezberdinek beren kontrol eta ustiapenerako jomugan dituzten lurraldeetan bizi diren jatorrizko herriak. Coloradas de la Virgen-en eta Choreachi-n, 14 pertsona erail dituzten estatu mexikarrak guztiz abandonatua duen leku batean, zeinak herrialdeko pobrezia-

indize altuena duen. Kasu horretan, komunitateetako defendatzaile eta ordezkari batzuentzat babes-neurriak izateak ere ez du balio izan haien segurtasuna eta bizitza zaintzeko, eta zigorgabetasunak jarraitzen du gaur egun ere. Hortaz, lurraldea defendatu ahal izateko eskubidea behin eta berriz da urratua.

Kasu guztietan ondorioak antzekoak dira: komunitateak lekualdatzea, mehatxuak, estortsioak, komunitateetako liderrak kriminalizatu eta espetxeratzea, eta kasurik txarrenetan, beren gorputza lehen lerroan jarri eta natura eta beren komunitateari dagokiona eta zuzena dena defendatzeko ahotsa altxatzen dutenak erailtzea. Bizi dugun klima-, gizarte-, eta eskubide-krisiaren testuinguru honetan defendatu beharreko oinarritzko hiru eskubide dira honako hauek: kontsulta libre eta informatua izateko eskubidea, lurralde iraunkorra eta ingurumen osasuntsua izateko eskubidea, eta lurralde hori defendatu ahal izateko eskubidea. Eta, hala ere, etengabe dira urratuak.

Horregatik adierazi nahi dugu eskubideak defendatzea, eta batez ere herri indigenenak, natura defendatzea dela, inoiz baino gehiago. Izan ere, lehen lerroan, ibaiak, mendiak eta guztiok arnasten dugun airea babesteko gorputza jartzen dutenen eskubideak eta bizitza defendatzen ez baditugu, nekez eraiki ahal izango dugu benetan bidezkoa eta iraunkorra den beste eredu hori.

Azkenik, Guatemalako eta Mexikoko agintariei exijitzen diegu herrien eskubideak bermatu ditzaten, bereziki OITren 169. hitzarmenean zehaztutako horiek, hala nola alde zuzeneko kontsulta libre eta informaturako eskubidea. Halaber, exijitzen diegu babes-neurriak ematea lurraldeetako defendatzaileei, beren bizitza aurkako arrisku larriari aurre egin behar baitiete.

Guatemalan, 2024ko azaroaren 29an.